

## BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

### 5531

*EBAZPENA, 2020ko abenduaren 17koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) arteko kudeaketa-gomendioari buruzko akordioaren gehigarria argitaratzen baita, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak programatutako edo baimendutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten langabeei eta landunei zuzendutako euskarazko hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak egiteko.*

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) aipatutako gehigarria sinatu dute, eta, beharrezko zabalkundea emateko xedez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) arteko kudeaketa-gomendioari buruzko akordioaren gehigarriaren testua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak programatutako edo baimendutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten langabeei eta landunei zuzendutako euskarazko hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak egiteko. Aipatutako testua eranskin gisa dago jasota.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 17a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

2020ko abenduaren 24a, osteguna

## ERANSKINA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ETA HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN (HABE) ARTEKO KUDEAKETA-GOMENDIOARI BURUZKO AKORDIOAREN GEHIGARRIA, LANBIDEK PROGRAMATUTAKO EDO BAIMENDUTAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZETAN PARTE HARTZEN DUTEN LANGABEEI ETA LANDUNEI ZUZENDUTAKO EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAIKUNTZAKO IKASTAROAK EGITEKO.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 16a.

## BILDU DIRA:

Alde batetik, Idoia Mendia Cueva andrea, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko presidente gisa jardunez,

Eta, bestetik, Bingen Zupiria Gorostidi jauna, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Institutuko (HABE) presidente gisa jardunez,

## AZALTZEN DUTE:

Lehenengoa.– 2020ko ekainaren 24an, bi alderdiek kudeaketa-gomendioari buruzko akordio bat sinatu zuten, Lanbidek programatutako edo baimendutako prestakuntza-ekintza kualifikatzaileetan parte hartzen duten edo parte hartu duten langabeei eta landunei zuzendutako euskarazko hizkuntza-gaikuntzako ekintzak egiteko.

Bigarrena.– Hitzarmen horren hirugarren klausulan ezartzen da Lanbidek eman beharreko diru-zuzkidura, adostutako prestakuntza-programazioa finantzatzeko. Zuzkidura hori 200.000 eurokoa da, eta, horietatik, 100.000 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 100.000 euro 2021eko konpromiso-kredituari.

Hirugarrena.– Bere garaian aurreikusitakoa baino handiagoa izan da hizkuntza-gaikuntzako prestakuntza-ekintzak egin ahal izateko eskaerak egin dituzten eta eskatutako baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaileen kopurua. Hortaz, prestakuntza-programazioa finantzatzeko behar den kreditua, dagokion euskaltegian matrikula egiten duten parte-hartzaileen kopuruaren datu zehatza jakin ezean, gorago aipatutako kudeaketa-gomendioari buruzko akordioan esleitutako diru-kopurua baino handiagoa da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua nahia da hizkuntza-trebakuntzari ematen dion laguntza areagotzea eta horretan jarraitzea, euskara ikasteko programak txertatuz, helburu honekin: komunikaziorako, ahozko eta idatzizko gaitasunean aurrera egitea, kasuan kasuko lanbide-eremu zehatzean, lanbide-zereginak hobeto garatzeko edo lanbidearen inguruko itxaropenak hobetzeko.

Horregatik, kontuan hartu behar dira aurkeztutako eskaerak.

Hori dela eta, bi alderdiek

## HITZARTZEN DUTE:

100.000 euroko zenbatekoan handitzea alderdiek 2020ko ekainaren 24an sinatu zuten kudeaketa-gomendioari buruzko akordioaren hirugarren klausulan aurreikusitako baliabide ekonomikoak.

Horietatik, 50.000 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 50.000 euro 2021eko konpromiso-kredituari. Horrela, 300.000 eurokoa da guztizko diru-zuzkidura: 150.000 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta beste 150.000 euro, 2021eko konpromiso-kredituari.

Eta ados daudela adierazteko, eta behar diren ondorioak izan ditzan, eranskin hau sinatu da, goian adierazitako tokian eta egunean.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.